

# Txapeldun baten lehen urratsak

Iban Maiza Euskadiko txapelduna da 60 eta 110 metroko hesi lasterketetan, junior mailan. Hamazazpi urte besterik ez dituen arren, markak hausten ari da eta gaur egun nazioarteko txapelketak ditu helburu.

Iban hamabi urte zituela hasi zen atletismoan, aitak bultzatuta. Ikastolan atletismo entrenatzaileak hesi lasterketak antolatzen zituzenez, Ibanek kirol hau aukeratu zuen. Kirolari gazte honen esanetan, "hasieran nahiko gaizki ibili nintzen. Hala ere, atletismoan esaten dutenez, hesi lasterketetan aritzen den atletak bost urte behar ditu beharrezko trebetasuna lortzeko, eta antza, nire kasuan, hori betetzen ari da". Kirol honetan funtsezkoa da abiadura, teknika eta trebetasuna uztartzea eta amaratarrak hirurak bateratzea lortu duela dirudi. "Entrenatzaileak dioenez, nahiko azkarra naiz hesi artean eta horrez gain, irteeretan abiadura ere badut". Dena dela, aurrerapausoak aurrerapauso, mutila ez dabil harrokerietan, eta kirol zaila aukeratu duela aitortu digu: "argi dut asko hobetu behar dudala. Bestalde, jakin badakit zortea izan dudala, nik bezala entrenatzen duten hainbat lagunek ez baitute aparteko emaitzarik lortu".

Ibanek 60 eta 110 metroko lasterketetan parte hartzen du. Estalitako pistan eta distantzia laburrean lortu ditu garaipekin aipagarrienak, baina hala ere, berak nahiago ditu kanpoaldean jokatzeko den 110 metroko lasterketa.



## Ibilbide ezinhobea

Hamazazpi urte besterik ez dituen arren, Iban Maizak garaipen ugari eskuratu ditu. Iaz Euskadiko txapelduna izan zen junior mailan eta duela pare bat aste maila honetako marka hautsi zuen. Espainiako txapelketetan ere podiumera heldu da. Aurten Ibanek Italia du buruan, herrialde honetan junior mailako txapelketak jokatu baitira uda partean. Orain arte egindako lana eta adina kontuan hartuta, etorkizunari begira hasia da Iban: "Kirola hasiera batean zaletasuna zen. Orain, aldiz, zalantza dut zer egingo ote dudan, Donostian bertan geratu ala Madrilera joan, ez baitakit zer izan daiteken egokiena kirol munduan aurrera egiteko".

Ziklokros denboraldia amaitzear dago. Joan den astebukaeran, esaterako, Munduko Txapelketak jokatu ziren Txekiako Tabor hirian. Haitz Ortiz Donostiako



ordezkari bakarra izan da aurten. Antiguatarrak hirugarren aldiz parte hartu du txapelketa hauetan eta 39. postuan sailkatu da, 23 urte azpiko mailan.

Datorren igandean hasita, hilak 11, eta apirilaren 1era bitartean, Intxaurrendoko pilotari txapelketa jokatu da.



Aurten Intxaurrendoko txapelketak hamar urte beteko ditu eta senior eta jubenetako pilotari onentsuenek parte hartuko dute. Guztira, hamabi bikote izango dira maila bakoitzean. Datorren igandetik aurrera, partidak larunbatetan 16.00etan eta igandeetan 10.00etan jokatu dira.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker  
gracias a ti

gizarte ekintza  
obra social